

Osasun Publikoa eta Klima-Aldaketa: zientziatik begira

- Datorren azaroaren 21en Klimagune Conferences ekimena egingo da, Bilboko Udalak eta BC3k, Basque Centre for Climate Change – Klima-Aldaketa Ikertzeko Bikaintasun Zentroak antolatuta.
- Paul Wilkinson, London School of Hygiene & Tropical Medicine delakoan Ingurumen Epidemiologiako Irakaslea eta Bilboko Udaleko Ingurumen Osasuna eta Hiri Higieneko burua Ramon Aldamiz-Echevarriak jardungo dute esparru honetako desafioak azalduz.

Klima-Aldaketak osasunaren esparruan dituen ondorioak ulertzea ezinbestekoa da atentzio publikoko sistemak diseinatzeko eta garatzeko. Gero eta maizago, aldagai hau herri guztietako osasun publikoko planetan sartzen ari da, zientziaren ebidentziek argi eta garbi erakutsi dutelako nahitaezkoa dela neurriak ezartzea, egokitzeko zein orain arte aurreikusi ez diren erronkei eranginkortasunez aurre egin ahal izateko.

Paul Wilkinson, London School of Hygiene & Tropical Medicine delakoan Ingurumen Epidemiologiako Irakaslea dena, Bilbon izango da datorren azaroaren 21n, ondoko galderari erantzuteko: **"Zergatik da onuragarria klima-aldaketa osasunaren ikuspuntutik aztertzea?"**.

Munduko egoerari buruz bere ikuspegia eman eta gero, Bilboko Udalaren esperientzia ere ezagutuko dugu, bertako Ingurumen, Osasuna eta Hiri Higieneko burua den Ramon Aldamiz-Echevarriak emango duen hitzaldiaren bitartez: **"Bilbo: osasun publikoan klima-aldaketak izan ditzakeen eragin eta aurreikuspenak. Datozen gaixotasunak"**.

Ikuspegiok testuinguru egokian kokatzen, hitzaldien aurretik dokumentala eskainiko da, **"Climate Change: The Effects On Our Air and Water"** izenburukoa, Floridako Orange Estatuko Osasun Sailak ekoiztua. Bertan klima-aldaketak aire eta uraren kalitatean duen inpaktua azaltzen da, eta eta baita hainbat gaitasunen hedapen posiblea islatu ere.

Hilaren 21eko jardunaldi hau "Klimagune Conferences: klima-aldaketa zientziatik begiratuta (Zineforoa)" ekimenaren barruan antolatu da. BC3, Basque Centre for Climate Change eta Bilboko Udaleko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren eskutik dator, eta bere helburua da Klima-Aldaketari buruzko ezagutza hobetzea eta gizarte-eztabaida sustatzea, klima-aldaketaren kontrola bermatu eta iraunkortasunean oinarritutako garapen ekonomiko eta soziala abiaraziko duten politiken aldeko konpromiso kolektiboari eusteko.

Klimagune Conferences.

Azaroak 21, 19:00 – Bastida Aretoa (Alhondiga – Bilbo)

Ingelesetik aldi bereko itzulpen-zerbitzua egongo da dokumentala eta hitzaldia jarraitu ahal izateko.

Sarrera doan da leku guztiak bete arte, eta BC3ko web orrian aldeztu aurretik izena ematea eskatzen da: www.bc3research.org/klimaguneconferences2012.

BILBOKO UDALA

Prensa Kabinetea: E. Erkoreka Plaza, z/b 48007 Bilbo

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 Faxe: 94 420 52 16 /

prensa@alcaldia.bilbao.net www.bilbao.net